



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko abenduaren 23a

157. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Galdera, administrari laguntzaileen eta administrarien lekualdatze-lehiaketa deitzeko aurreikuspenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (2. or.).
- Galdera, lehengoratuko diren ratioak gainditu arren ikasgelarik bikoiztu ezin izanen duten ikastetxeei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, Haur eta Lehen Hezkuntzan ratioak lehengoratzearen ondorioz ikasgelak bikoiztuko dituzten ikastetxeei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, gizarteratze errenta jasotzeko eskubidea duten familia-unitateek prestazioa jasotzen emandako denborari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, Lanbide Heziketako ikastetxeetarako orientazio-lanpostuak esleitzeko baremoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, Maila Ertaineko, oinarrizko LHko eta LH bereziko ikasleen eskola-orientazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, Lanbide Heziketan eskola-orientaziorako baliabideak gutxitzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).

#### G SAILA:

##### **Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen 2017ko lan egutegia (24. or.).
- Nafarroako Parlamentuko Erregistro Orokorraren 2017ko ordutegi ofiziala (25. or.).
- Lan-egutegia eta Erregistroaren ordutegia aldatzea 2016ko abenduaren 27tik 2017ko urtarrilaren 5era bitarteko egunetan (25. or.).

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

## **Galdera, administrari laguntzaileen eta administrarien lekualdatze-lehiaketa deitzeko aurreikuspenari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, administrari laguntzaileen eta administrarien lekualdatze-lehiaketa deitzeko aurreikuspenari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko ekainaren 24ko 92. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko uztailaren 18an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak idatziz erantzuteko honako galdera hauek egin ditu (9-16/PES-00271):

1. Gobernuak ba al du administrari laguntzaileen eta administrarien lekualdatze-lehiaketarik deitzeko asmorik?

2. Probarik eginen al da administrari laguntzaileen eta administrarien kontratazio-zerrendetarako?

3. Kontratazio-zerrendetarako probak egin aurretik lekualdatze-lehiaketa egiteko asmoa al du Gobernuak?

4. Zer arrazoi egon da negoziatio-mahaiak ez deitzeko, zenbait sindikatuk salatu duten moduan?

Lehengo galderan eskatzen den informazioa ematea aldera, bidezko da esatea. behin ekainaren 29ko lan eskaintza publikoa onetsia, Negoziazio Mahai Orokorrean zehaztu beharra dagoela lan eskaintza publikoan sartu ez diren zein lanpostutan komeni den lekualdatze-lehiaketa egitea. Behin hartan sartu diren lanpostuak zehaztuta, lan eskaintza publikoan sartu ez diren lanpostuei buruzko azterlana eta informazio-bilketa hasiko

dira, bai eta haiek direla-eta egin diren azken lekualdatze lehiaketari buruzkoak ere, sindikatuekin negoziatu ahal izateko zein lanpostutan egin behar den lekualdatze-lehiaketa eta hartarako egutegia ezartzeko.

2. galderari dagokionez, informatu behar dugu 2016ko ekainaren 2an NAO-n Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiaren maiatzaren 2ko 972/2016 Ebazpena argitaratu zela, administrari laguntzaileen lanpostuetan aritzeko izangaien bi zerrenda hautaprobek bidez osatzeko deialdiak onesten dituen; bata, aldi baterako kontratazioetarako, eta bestea, prestakuntzarako zerbitzu berezietan aritzeko. Horiez gain, lanpostu horretan trebatzeko lau urteko bigarren prestakuntzaldian sartzeko proba egiteko deialdia ere onesten da. Dokumentu horren esteka erantsi dugu.

3. galderari dagokionez, esan beharra dago bi prozedurak autonomoak direla. Sindikatuekin kasuan kasu erabaki daitezkeen lanpostuen lekualdatze-lehiaketak ez daude lotuta aurreko idatz-zatian adierazitako probekin.

4. galderari erantzuteko, bidezko da esatea Mahai Orokorrean lau bilkura egin direla; honako egun hauetan, hain zuzen:

- 2015eko irailak 7
- 2015eko abenduak 1
- 2015eko abenduak 21
- 2016ko otsailak 5
- 2016ko maiatzak 3
- 2016ko maiatzak 16
- 2016ko ekainak 16

Gainera, mahai sektorialen honako bilera hauek egin dira:

– Foruzaingoaren Mahai Sektoriala: 2015eko abuztuaren 11n, 2015eko urriaren 9an, 2015eko

urriaren 23an, 2015eko abenduaren 1ean eta 2016ko apirilaren 19an.

– Su-hiltzaileen eta Babes Zibilaren Zerbitzuetako Mahai Sektoriala 2016ko apirilaren 12an eta 2016ko ekainaren 21ean.

– Justiziako Mahai Sektoriala: 2016ko urtarrilaren 19an eta 2016ko ekainaren 29an.

– Administrazio Erroaren Mahai Sektoriala: 2016ko urtarrilaren 12an eta 2016ko martxoaren 22an

Halaber, Enplegua Banatzeko Neurrietarako Jarraipen Batzorderako deia egin da. 2016ko uztailaren 5ean egingo da bilera hori.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilaria: María José Beaumont Aristu

## **Galdera, lehenoratuko diren ratioak gainditu arren ikasgelarik bikoiztu ezin izanen duten ikastetxeei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, lehenoratuko diren ratioak gainditu arren ikasgelarik bikoiztu ezin izanen duten ikastetxeei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko ekainaren 24ko 92. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko uztailaren 4an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

UNP parlamentu-taldeak 9-16/PES-00272 informazio-eskaera egin du, non galdetzen baita ezarritako ratioak gaindituta ere gelak bikoizterik izango ez duten ikastetxeei buruz eta hori dela-eta ezarriko diren konpentsazioei buruz. Hona Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariak informatu beharrekoa:

Lehenengo galdera dela eta, esan beharra dago apirilaren 20ko 14/2012 Errege Dekretuak indarra hartu zuenetik ikasgela bakoitzeko ikasle-ratioak aldatu egin zirela, halako moduz non Nafarroan ikasgela bakoitzeko 25 ikasleko ratioa ezarri baitzen Haur Hezkuntzako 1. mailan, 26koa Haur Hezkuntzako 2. mailan eta 27koa Haur Hezkuntzako gainerako mailetan eta Lehen Hezkuntzan. Hartara, ikastetxeek ikasleak onartu ahal izan dituzte ezarritako mugara arte, kasuan kasu aurreikusita dagoen ikasgela kopuruaren arabera.

Hezkuntza Departamentuak erabaki du 2016-2017 ikasturterako ratioak berriz ere aipatutako dekretukoak izatea, halako moduz non ikasgela bakoitzeko gehieneko ikasle kopurua 25ekoa izanen den. Horrek berarekin ekarri du ikasturte honetara arte kopuru hori gainditu duten talde asko bikoiztea.

Hala eta guztiz ere, maila batzuetan ratioen erregulazio berrian ezarritakoa baino ikasle gehiago zituzten ikastetxe batzuek ezingo dituzte bidezko diren bikoizketak egin, horrerako gela nahikorik ez dutelako. Honako hauek dira ikastetxe horiek:

<b>Ikastetxea</b>	<b>Eredua / Programa</b>	<b>Ikasmaila</b>	<b>Ikasleak</b>
Cardenal Ilundain HLHIPa	A/G PAI	4 urte	102
Cardenal Ilundain HLHIPa	A/G PAI	Lehen hezkuntzako 2. maila	78
Cardenal Ilundain HLHIPa	A/G PAI	Lehen hezkuntzako 3. maila	80
Doña Mayor de Navarra HLHIPa	A/G PAI	Lehen hezkuntzako 1. maila	80
Doña Mayor de Navarra HLHIPa	A/G PAI	Lehen hezkuntzako 3. maila	77
Arrotxapea HLHIPa	A/G PAI	5 urte	51
Arrotxapea HLHIPa	A/G PAI	Lehen hezkuntzako 1. maila	51
Arrotxapea HLHIPa	A/G	Lehen hezkuntzako 5. maila	52
San Juan de la Cadena HLHIPa	A/G PAI	4 urte	51
San Juan de la Cadena HLHIPa	A/G PAI	5 urte	51
San Juan de la Cadena HLHIPa	A/G PAI	Lehen hezkuntzako 1. maila	52
San Juan de la Cadena HLHIPa	A/G	Lehen Hezkuntzako 4. maila	51
Griseras HLHIPa	A/G	Lehen Hezkuntzako 4. maila	51
Griseras HLHIPa	A/G PAI	Lehen hezkuntzako 1. maila	52
Huertas Mayores HLHIPa	G PAI	3 urte	51
Huertas Mayores HLHIPa	G PAI	4 urte	52
Huertas Mayores HLHIPa	G PAI	5 urte	54
Huertas Mayores HLHIPa	G PAI	Lehen hezkuntzako 1. maila	55

Bigarren galerari dagokionez, erabaki da tokirik ez dutelako bikoizketak egiterik izango ez duten ikastetxeek irakasleen 17 saio gehigarriren zuzkidura bat edukiko dutela bikoiztu ez den maila bakoitzeko, laguntzako lanak egiteko, bikoizketa puntualak egiteko eta abarretarako. Iripzide horri

unitate guztietan eutsi egin zaio, salbu eta Cardenal Ilundain HLHIPaan, non, dauzkan ezaugarri bereziak tarteko, 22 saioko zuzkidura gehigarria eman baita. Honako hauek dira ikastetxe eta talde bakoitzeko saioak:

<b>Ikastetxea</b>	<b>Ikasmaila</b>	<b>Laguntzako saioak</b>
Cardenal Ilundain HLHIPa	4 urte	17
Cardenal Ilundain HLHIPa	Lehen hezkuntzako 2. maila	17
Cardenal Ilundain HLHIPa	Lehen hezkuntzako 3. maila	22
Doña Mayor de Navarra HLHIPa	Lehen hezkuntzako 1. maila	17
Doña Mayor de Navarra HLHIPa	Lehen hezkuntzako 3. maila	17
Arrotxapea HLHIPa	5 urte	17
Arrotxapea HLHIPa	Lehen hezkuntzako 1. maila	17
Arrotxapea HLHIPa	Lehen hezkuntzako 5. maila	17
San Juan de la Cadena HLHIPa	4 urte	17
San Juan de la Cadena HLHIPa	5 urte	17
San Juan de la Cadena HLHIPa	Lehen hezkuntzako 1. maila	17
San Juan de la Cadena HLHIPa	Lehen Hezkuntzako 4. maila	17
Griseras HLHIPa	Lehen Hezkuntzako 4. maila	17
Griseras HLHIPa	Lehen hezkuntzako 1. maila	17
Huertas Mayores HLHIPa	3 urte	17
Huertas Mayores HLHIPa	4 urte	17
Huertas Mayores HLHIPa	5 urte	17
Huertas Mayores HLHIPa	Lehen hezkuntzako 1. maila	17

Iruñean, 2016ko uztailaren 4an

Hezkuntzako kontseilaria: José Luis Mendoza  
Peña

## **Galdera, Haur eta Lehen Hezkuntzan ratioak lehengoratzearen ondorioz ikasgelak bikoiztuko dituzten ikastetxeei buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Haur eta Lehen Hezkuntzan ratioak lehengoratzearen ondorioz ikasgelak bikoiztuko dituzten ikastetxeei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko ekainaren 24ko 92. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko uztailaren 18an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeak 9-16/PES-00273 informazio-eskaera egin du, non galdetzen baita Haur eta Lehen Hezkuntzan ratioak lehengoratzearen ondorioz ikasgelak bikoiztuko dituzten ikastetxeei buruz. Hona Nafarroako

Gobernuko Hezkuntzako kontseilariak informatu beharrekoa:

Esan beharra dago apirilaren 20ko 14/2012 Errege Dekretuak indarra hartu zuenetik ikasgela bakoitzeko ikasle-ratioak aldatu egin zirela, halako moduz non Nafarroan ikasgela bakoitzeko 25 ikasleko ratioa ezarri baitzen Haur Hezkuntzako 1. mailan, 26koa Haur Hezkuntzako 2. mailan eta 27koa Haur Hezkuntzako gainerako mailetan eta Lehen Hezkuntzan. Hartara, ikastetxeek ikasleak onartu ahal izan dituzte ezarritako mugara arte, kasuan kasu aurreikusita dagoen ikasgela kopuruaren arabera.

Hezkuntza Departamentuak erabaki du 2016-2017 ikasturterako ratioak berriz ere aipatutako dekretukoak izatea, halako moduz non ikasgela bakoitzeko gehieneko ikasle kopurua 25ekoa izan den. Horrek berarekin ekarri du ikasturte honetara arte kopuru hori gainditu duten talde asko bikoiztea. Honako hauek dira hasiera batean aurreikusi diren ikastetxeak:

Herria	Ikastetxea	Eredua / Programa	Ikasmaila	15-16 ikasturteko ikasleak	15-16 ikasturteko taldeak	16-17 ikasturteko taldeak
Ablitas	San Babil HLHIPa	A/G	Lehen hezkuntzako 3. maila	27	1	2
Altsasu	Zelandi HLHIPa	D	4 urte	26	1	2
Antsoain	Ezkaba HLHIPa	D	Lehen hezkuntzako 2. maila	76	3	4
Antsoain	Ezkaba HLHIPa	D	Lehen hezkuntzako 3. maila	101	4	5
Antsoain	Ezkaba HLHIPa	D	Lehen Hezkuntzako 4. maila	102	4	5
Berriozar	Mendialdea II HLHIPa	D	Lehen Hezkuntzako 4. maila	53	2	3
Cintruénigo	Otero de Navascués HLHIPa	A/G PAI	Lehen hezkuntzako 1. maila	128	5	6
Eguesibar	Joakin Lizarraga HLHIPa	D	4 urte	126	5	6
Eguesibar	Joakin Lizarraga HLHIPa	D	5 urte	105	4	5
Lizarra	Remontival HLHIPa	A/G PAI	5 urte	51	2	3
Faltzes	Álvara Álvarez HLHIPa	A/G	Lehen hezkuntzako 1. maila	26	1	2
Funes	Elias Terés HLHIPa	A/G	Lehen hezkuntzako 1. maila	26	1	2
Fustiñana	Santas Justo y Pastor HLHIPa	A/G	Lehen hezkuntzako 1. maila	26	1	2
Mutiloa	San Pedro HLHIPa	A/G	Lehen hezkuntzako 2. maila	27	1	2
Orkoién	Auzalar HLHIPa	D	3 urte	51	2	3
Orkoién	Auzalar HLHIPa	D	Lehen hezkuntzako 5. maila	27	1	2
Iruña	Bernat Etxepare HLHIPa	D	4 urte	51	2	3
Iruña	Bernat Etxepare HLHIPa	D	Lehen hezkuntzako 1. maila	54	2	3
Iruña	Bernat Etxepare HLHIPa	D	Lehen hezkuntzako 5. maila	51	2	3
Iruña	Buztintxuriko HLHIP	A/G PAI	Lehen hezkuntzako 1. maila	53	2	3
Iruña	Buztintxuriko HLHIP	A/G PAI	Lehen hezkuntzako 3. maila	51	2	3
Iruña	Buztintxuriko HLHIP	D PAI	4 urte	52	2	3
Iruña	Buztintxuriko HLHIP	D PAI	5 urte	51	2	3
Iruña	Cardenal Ilundain HLHIPa	A/G PAI	5 urte	78	3	4
Iruña	Cardenal Ilundain HLHIPa	A/G PAI	Lehen hezkuntzako 1. maila	80	3	4
Iruña	El Lago de Mendillorri HLHIPa	A/G	Lehen hezkuntzako 2. maila	27	1	2
Iruña	El Lago de Mendillorri HLHIPa	A/G PAI	4 urte	26	1	2
Iruña	Ermitagaña HLHIPa	A/G PAI	Lehen hezkuntzako 2. maila	51	2	3
Iruña	Ermitagaña HLHIPa	A/G PAI	Lehen hezkuntzako 3. maila	51	2	3
Iruña	Hegoalde Ikastola HLHIPa	D	4 urte	26	1	2
Iruña	José M <sup>o</sup> Huarte HLHIPa	G-British	3 urte	26	1	2
Iruña	José M <sup>o</sup> Huarte HLHIPa	G-British	4 urte	26	1	2
Iruña	Paderbon-Víctor Pradera HLHIPa	A/G PAI	4 urte	26	1	2
Iruña	San Francisco HLHIPa	D	Lehen hezkuntzako 5. maila	27	1	2
Iruña	Sanduzelai HLHIPa	D	5 urte	26	1	2
Iruña	Vázquez de Mella-Bayonne HLHIPa	A/G	Lehen hezkuntzako 5. maila	28	1	2
Azkoién	Juan Bautista Irurzun HLHIPa	A/G PAI	5 urte	51	2	3
Gares	Gares HLHIP	D	Lehen hezkuntzako 2. maila	26	1	2
Tutera	Elvira España HLHIPa	G-British	Lehen hezkuntzako 1. maila	82	3	4
Tutera	Huertas Mayores HLHIPa	G PAI	Lehen hezkuntzako 3. maila	77	3	4
Tutera	Monte San Julián HLHIPa	A/G	Lehen hezkuntzako 5. maila	51	2	3
Atarrabia	Lorenzo Goicoa HLHIPa	G-British	4 urte	51	2	3
Atarrabia	Lorenzo Goicoa HLHIPa	G-British	Lehen Hezkuntzako 4. maila	53	2	3
Zizur Nagusia	Camino de Santiago HLHIPa	A/G PAI	Lehen Hezkuntzako 4. maila	52	2	3
Zizur Nagusia	Erreniega HLHIPa	D	Lehen hezkuntzako 2. maila	51	2	3

Aurreikuspen hori aldatu egin daiteke zenbait konturen arabera; esate baterako ikasturtea errepikatzea, ukitutako taldeetako ikasleak ikaste-txez aldatzea eta abar.

Iruñean, 2016ko uztailaren 6an

Hezkuntzako kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

## **Galdera, gizarteratze errenta jasotzeko eskubidea duten familia-unitateek prestazioa jasotzen emandako denborari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maribel García Malo andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, gizarteratze errenta jasotzeko eskubidea duten familia-unitateek prestazioa jasotzen emandako denborari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko uztailaren 1eko 94. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko abuztuaren 4an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako Maribel García Malo andreak galdera egin du gizarteratze errenta jasotzeko eskubidea duten familia-unitateek prestazioa jasotzen emandako denborari buruz (9-16/PES-00274). Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako lehendakariordeak ematen dion informazioa:

2016ko ekainaren 17ko idazkiaren bidez, aipatutako parlamentariak informazioa eskatu zuen gizarteratze errenta jasotzeko eskubidea duten familia-unitateek prestazioa jasotzen jarraitzeko denborari buruz:

a) Urtez urte, 2010etik 2016ra. Sexuaren arabera berezita.

b) Urtez urte, 2010etik 2016ra. Familia-unitatea osatzen duten kideen kopuruaren arabera berezita.

c) Urtez urte, 2010etik 2016ra. Urtez urte, 2010etik 2016ra, nazionalak, etorkinak oro har eta egoera irregularrean dauden etorkinak berezita.

d) Denbora horretan garapen positiborik egon al da prestazioa jasotzen jarraitzeko denborari dagokionez?

Beste ezer baino lehen, zehaztaperen metodologiko batzuk egin behar dira lau galderei erantzuteko ematen diren datuak behar bezala interpretatzeko.

Datuak errepikapenik gabeko familia-unitateak identifikatzen dituzte. Ez dute "iragana" kontuan hartzen, hau da, erreferentzia-urteak dagoen iraupenari lotuta daude (adibidez, 2010eko datuak 2010 eta 2016 artean prestazioa jasotzen eman-

dako hilabeteak agertzen dituzte; 2011ko datuak 2011 eta 2016 arteko iraupena islatzen dute, eta horrela gainerakoak). Gainera, urte bakoitzerako urte horretan sartzen diren familia-unitateak baino ez dira adierazten (aurreko urteetan sartu direnak dagokien sartzeko-urtean zenbatzen dira).

Halaber, egokitzen da datu orokorrak aurkeztea kontsultatutako hiru aldagaietako (sexua, familia-unitateko kideen kop. eta nazionalitatea) bakoitzaren arabera bereziki gabe, lagungarria izanzen baita datuak interpretatzeko.

Prestazioa jasotzen emandako denbora hilabeteetan neurtzen da, ez urte naturaletan. Etena dagoela ulertzen da, errenta jasotzen den bi hilabeteren artean horrelakorik jasotzen ez den hilabete bat, gutxienez, dagoenean.

1. eta 2. tauletan datu orokorrak agertzen dira prestazioa jasotzen hasten den urtearen eta programan emandako hilabete guztien arabera banatuta, eta familia-unitateen kopurua (balio absolutuan zein erlatiboan) adierazten da, baita prestazioa jasotzen emandako hilabeteen batezbestekoa eta iraupen-aldian familia-unitate bakoitzak prestazioari lotuta izan dituen etenen kopurua ere.

1. eta 2. tauletako datuen arabera, eskatutako informazioari dagokion aldirian (2010etik 2016ra) 19.488 familia-unitate (FU) ezberdin sartu dira, guztira; horietatik % 24k 11 hilabete edo gutxiago (6 hilabeteko batezbestekoa dago) eman dituzte bertan, % 37k 12 eta 23 hilabete arteko aldiria (14 hilabeteko batezbestekoa) eta gainerakoek, hau da, % 31k, berriz, 24 hilabete edo gehiago (55 hilabeteko batezbestekoa). Baina 2015eko eta 2016ko datuak oraindik ere iraupen-aldirik ez dutenez, portzentaje horiek desitxuratzen dituzte. Hori dela eta, bi urte horiek alde batera utziz gero, 12 hilabete baino gutxiago ematen dituzten familia-unitateak % 26 dira (6 hilabeteko batezbestekoa dago), 12 eta 23 hilabete arteko aldirian jaso dutenak ere % 27 dira (16 hilabeteko batezbestekoa) eta 24 hilabete baino gehiago eman dituztenak % 47 dira (56 hilabeteko batezbestekoa). Oro har, iraupenaren batezbestekoa 21 hilabetekoa da (23 hilabetekoa, 2015eko eta 2016ko datuak alde batera utziz gero), eta, prestazioan egondako etenen batezbestekoa bat bakarra da familia-unitateko.



Laburbilduta, programako iraupenaren batezbestekoa 23 hilabetekoa da, eten bakarra egonda. Familia-unitateen % 53k 24 hilabete baino gutxiago ematen dituzte; eta % 47k, berriz, 24 hilabete baino gehiago.

1. taula. Oinarrizko errentako edo gizarteratze errentako programan arreta jasotzen duten familia-unitateak, sartze-urtearen eta errenta jasotzen emandako hilabeteen arabera; familia-unitateen kop. balio absolutuan zein erlatiboan (ilarako porzentajea)

Urtea	Iraupen-aldia																	
	0		1		2		3		4		5		6		7		Guztira	
	FU	%	FU	%	FU	%	FU	%	FU	%	FU	%	FU	%	FU	%	FU	%
2010	915	% 26	948	% 27	634	% 18	436	% 12	347	% 10	173	% 5	71	% 2	14	% 0	3538	% 100
2011	822	% 28	713	% 24	586	% 20	407	% 14	316	% 11	108	% 4	26	% 1			2978	% 100
2012	572	% 25	583	% 26	458	% 20	335	% 15	288	% 13	19	% 1					2255	% 100
2013	878	% 26	957	% 28	727	% 21	623	% 18	213	% 6							3398	% 100
2014	768	% 27	832	% 29	982	% 34	285	% 10									2867	% 100
2015	554	% 18	1913	% 64	544	% 18											3011	% 100
2016	133	% 9	1268	% 91													1401	% 100
<b>Guztira</b>	<b>4642</b>	<b>% 24</b>	<b>7214</b>	<b>% 37</b>	<b>3931</b>	<b>% 20</b>	<b>2086</b>	<b>% 11</b>	<b>1164</b>	<b>% 6</b>	<b>300</b>	<b>% 2</b>	<b>97</b>	<b>% 0</b>	<b>14</b>	<b>% 0</b>	<b>19448</b>	<b>% 100</b>

**Iraupena:**

0: 1 eta 11 hilabete artekoa	2: 24 eta 35 hilabete artekoa	4: 48 eta 59 hilabete artekoa	6: 72 eta 83 hilabete artekoa
1: 12 eta 23 hilabete artekoa	3: 36 eta 47 hilabete artekoa	5: 60 eta 71 hilabete artekoa	7: 84 eta 95 hilabete artekoa

2. taula. Oinarrizko errentako edo gizarteratze errentako programan arreta jasotzen duten familia-unitateak, urtearen eta iraupenaren arabera; errenta jasotzen emandako hilabeteen batezbestekoa eta etenen batezbestekoa.

Urtea	Iraupen-aldia																	
	0		1		2		3		4		5		6		7		Guztira	
	H	E	H	E	H	E	H	E	H	E	H	E	H	E	H	E	H	E
2010	6	0	15	1	27	1	40	2	52	2	62	2	74	1	84	0	25	1
2011	6	0	15	1	28	1	40	2	51	2	62	1	72	1			24	1
2012	6	0	16	1	28	1	38	2	49	1	60	1					24	1
2013	6	0	16	1	29	1	37	1	48	0							22	1
2014	6	0	17	1	27	0	36	0									19	0
2015	6	0	13	0	24	0											14	0
2016	3	0	12	0													11	0
<b>Guztira</b>	<b>6</b>	<b>0</b>	<b>14</b>	<b>0</b>	<b>27</b>	<b>1</b>	<b>38</b>	<b>1</b>	<b>50</b>	<b>2</b>	<b>62</b>	<b>2</b>	<b>73</b>	<b>1</b>	<b>84</b>	<b>0</b>	<b>21</b>	<b>1</b>

**Iraupena:**

0: 1 eta 11 hilabete artekoa	2: 24 eta 35 hilabete artekoa	4: 48 eta 59 hilabete artekoa	6: 72 eta 83 hilabete artekoa
1: 12 eta 23 hilabete artekoa	3: 36 eta 47 hilabete artekoa	5: 60 eta 71 hilabete artekoa	7: 84 eta 95 hilabete artekoa
H: programan emandako hilabeteen batezbestekoa		E: etenen batezbestekoa	

Amaitzeko, eta prestazioaren egungo egoera erakuste aldera, 3. taula agertzen da, 2016ko ekainean gizarteratze errenta jasotzeko eskubidea izan duten familia-unitateen datuak islatzen dituen, prestazioa aurreko hiletan jaso duten eta bertan etenik egon den ala ez zehaztuta (etena dagoela ulertzen da, hilabete batean, gutxienez, prestazioa jasotzeko eskubiderik ez dagoenean). Datu horietatik nabarmenena da, 2016ko ekainean gizarteratze errenta jasotzeko eskubidea zuten 10.144 familia-unitateetatik, 5.614 (% 55,33) siste-

mara sartu eta horretatik irten direla, eta ez dutela prestazioa modu iraunkorrean jaso. Modu etengabe jaso dutenetatik, % 27k modu iraunkorrean jaso dute 24 hilabetean baino gutxiagotan eta % 18k 24 hilabetean edo gehiagotan.

3. taula. 2016ko ekainean gizarteratze errenta jasotzeko eskubidea zuten familia-unitateak; prestazioa jaso duten aurreko hilabeteen kopuruaren eta pertzepzioaren "etenen" kopuruaren arabera banaketa

Datuak: familia-unitateen kop.	Etenen kop.									Orokorra, guztira	
HILABETEA	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	
2	6										6
3	11										11
4	8										8
5	7										7
6	12										12
7	11	1									12
8	8	1									9
9	8	1									9
10	7	4									11
11	8	3	2								13
12	2448	4	3								2455
13	2	28									30
14	3	30	1	1							35
15	2	42	1								45
16	5	36	4								45
17	3	36	5								44
18	160	282	9	3							454
19	1	18	13	2	1						35
20	4	31	13	1	1						50
21	2	21	22	1							46
22	1	18	18	4							41
23	7	20	11	2							40
24	632	240	101	5	2						980
25	3	11	8	4							26
26	5	22	18	7	1						53
27	1	19	27	8	2		1				58
28	3	23	16	9	1						52
29	3	16	13	6	2						40
30	354	226	96	35	3						714
31	1	13	17	10	3						44
32	3	27	23	7	2	1					63
33	1	17	22	6	6		2				54
34	1	20	12	8	5	3					49
35	1	24	14	6	3	2	1				51
36	436	334	174	67	20	5		1			1037
37	2	7	13	9	2	3					36
38	2	12	12	10	1	1					38
39	2	10	11	10	5	1	1				40
40	1	5	13	11	9	2					41
41		6	13	13	4		2				38
42	20	128	124	70	22	9	1				374
43	1	2	9	6	1	3	1				23
44	2	3	8	10	6	2					31
45	1	3	13	9	3		1				30
46		3	6	11	5	1					26
47		5	11	10	7	4	1				38
48	206	216	165	92	42	11	1				733
49	1	3	10	5	3	4	1				27
50		2	5	6	4	2	1				20
51		5	21	7	3	4	1	1			42
52		6	11	11	6	3	1	2			40
53		11	6	8	7	2	1				35
54	11	85	107	62	29	9					303
55		3	7	2	3	3	1				19
56	1	2	6	7	2	3		1			22
57		4	8	15	8	2	2				39
58	1	3	7	6	9		2				28
59		1	8	3	6	2	1				21
60	9	84	94	56	34	10	5	1			293
61		2	3	8				1			14

Datuak: familia-unitateen kop.	Etenen kop.										
HILABETEA	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	Orokorra, guztira
62			3	7	3	1	1				15
63		7	7	13	4	4		1			36
64		3	2	6	3	1					15
65			7	8	1	2					18
66	14	39	46	33	11	10	1		1		155
67		1	4	3	2	2	1				13
68	1	2	4	4	2		1				14
69		6	4	6	8	2	2	1			29
70		2	2	4	4	1					13
71		2	8	1	4	3	1				19
72	18	43	43	29	14	6	1				154
73			3	1	1	4	2			1	12
74			6	1	5	5					17
75		2	7	9	7	1	2				28
76		2	4	3	3						12
77		3	3	2	6						14
78	8	29	31	17	8	2	1	1			97
79			2	3		1					6
80			3		2	2	2				9
81		7	7	5	5	2	1	1			28
82			3	5	2		1				11
83		1	3	1	5	1					11
84	10	22	17	16	6	3		1			75
85	1	1	1	1	1						5
86		1	1	5	1		2				10
87		4	3	6	4	1	2				20
88		1		1	1	1			1		5
89			2	1				1			4
90	9	14	15	9	7	5	1	1			61
91				1	2						3
92				1							1
93	1	1	3	4	3	3					15
94			2	1		1					4
95		2	1		1						4
96	4	17	14	6	5			1			47
97				1							1
98			1	1							2
99		3	7	3							13
100			2		1	1					4
101		1	1	1	2						5
102	6	14	15	6	1						42
103		2		1							3
104		2			1						3
105	2	3	1			1					7
106		2	2	1							5
108	6	19	6	1	1						33
109			3			1					4
110		1									1
111	1	3	2								6
112				1							1
113		1									1
114	6	5	3	1	1						16
117	1	1									2
118		1									1
119	1	1									2
120	10	5	1								16
121	3										3
<b>Orokorra, guztira</b>	<b>4530</b>	<b>2455</b>	<b>1639</b>	<b>879</b>	<b>411</b>	<b>159</b>	<b>50</b>	<b>15</b>	<b>2</b>	<b>1</b>	<b>10141</b>

a) Urtez urte, 2010etik 2016ra. Sexuaren arabera berezita.

3. taula. Oinarrizko errentako edo gizarteratze errentako programan arreta jasotzen duten familia-unitateak, sartze-urtearen, errenta jasotzen emandako hilabeteen eta prestazioaren titularraren sexuaren arabera.

Urtea	Sexua	Iraupena							Orokorra, guztira	
		0	1	2	3	4	5	6		7
2010	<b>Guztira</b>	<b>915</b>	<b>948</b>	<b>634</b>	<b>436</b>	<b>347</b>	<b>173</b>	<b>71</b>	<b>14</b>	<b>3538</b>
	Gizonezkoak	526	533	306	214	165	66	19	4	1833
	Emakumezkoak	389	415	328	222	182	107	52	10	1705
2011	<b>Guztira</b>	<b>822</b>	<b>713</b>	<b>586</b>	<b>407</b>	<b>316</b>	<b>108</b>	<b>26</b>		<b>2978</b>
	Gizonezkoak	498	391	322	214	147	45	5		1622
	Emakumezkoak	324	322	264	193	169	63	21		1356
2012	<b>Guztira</b>	<b>572</b>	<b>583</b>	<b>458</b>	<b>335</b>	<b>288</b>	<b>19</b>			<b>2255</b>
	Gizonezkoak	338	329	256	186	127	3			1239
	Emakumezkoak	234	254	202	149	161	16			1016
2013	<b>Guztira</b>	<b>878</b>	<b>957</b>	<b>727</b>	<b>623</b>	<b>213</b>				<b>3398</b>
	Gizonezkoak	479	508	371	287	83				1728
	Emakumezkoak	399	449	356	336	130				1670
2014	<b>Guztira</b>	<b>768</b>	<b>832</b>	<b>982</b>	<b>285</b>					<b>2867</b>
	Gizonezkoak	437	397	437	141					1412
	Emakumezkoak	331	435	545	144					1455
2015	<b>Guztira</b>	<b>554</b>	<b>1913</b>	<b>544</b>						<b>3011</b>
	Gizonezkoak	280	902	240						1422
	Emakumezkoak	274	1011	304						1589
2016	<b>Guztira</b>	<b>134</b>	<b>1268</b>							<b>1402</b>
	Gizonezkoak	72	577							649
	Emakumezkoak	62	691							753

**Iraupena:**

0: 1 eta 11 hilabete artekoa	2: 24 eta 35 hilabete artekoa	4: 48 eta 59 hilabete artekoa	6: 72 eta 83 hilabete artekoa
1: 12 eta 23 hilabete artekoa	3: 36 eta 47 hilabete artekoa	5: 60 eta 71 hilabete artekoa	7: 84 eta 95 hilabete artekoa

b) Urtez urte, 2010etik 2016ra. Familia-unitateko kideen kopuruaren arabera bereizita.

Kasu honetan, kontuan hartu behar da familia-unitateen % 24k beren tamaina aldatzen dutela urtean edo hurrengo urteetan. Hori dela eta, erreferentzia-balioz jotzen da zenbatu egin den kideen kopuru handiena, erregistroak bikoiztea eragozte aldera; hau da, familia-unitate batek bi

kide baditu eta hurrengo urtean, aldiz, hiru, hiru hartzen da balioz.

4. taula. Oinarrizko errentako edo gizarteratze errentako programan arreta jasotzen duten familia-unitateak, sartzeko-urtearen, errenta jasotzen emandako hilabeteen eta familia-unitateko kideen kopuruaren arabera

Urtea	Kideen kopurua	Iraupena								Orokorra, guztira
		0	1	2	3	4	5	6	7	
2010	<b>Guztira</b>	<b>915</b>	<b>948</b>	<b>634</b>	<b>436</b>	<b>347</b>	<b>173</b>	<b>71</b>	<b>14</b>	<b>3538</b>
	1	476	539	324	221	170	77	20	5	1832
	2	135	168	114	82	61	42	26	4	632
	3	142	107	86	52	61	23	11	3	485
	4	77	73	55	44	34	20	10	2	315
	5	51	41	31	27	17	7	4		178
	6	24	16	20	9	4	3			76
	7	4	2	3			1			10
	8	5	1	1	1					8
10	1	1							2	
2011	<b>Guztira</b>	<b>822</b>	<b>713</b>	<b>586</b>	<b>407</b>	<b>316</b>	<b>108</b>	<b>26</b>		<b>2978</b>
	1	482	382	334	214	133	48	10		1603
	2	108	128	107	86	68	25	10		532
	3	117	103	64	65	53	18	4		424
	4	66	51	45	29	28	10	1		230
	5	33	39	25	9	26	5			137
	6	15	6	7	2	7	1	1		39
	7	1	3	3	2		1			10
	8		1	1		1				3
2012	<b>Guztira</b>	<b>572</b>	<b>583</b>	<b>458</b>	<b>335</b>	<b>288</b>	<b>19</b>			<b>2255</b>
	1	267	300	252	203	114	3			1139
	2	105	113	78	58	64	2			420
	3	81	90	68	43	60	12			354
	4	72	52	37	19	35	1			216
	5	39	19	16	10	11	1			96
	6	5	6	6	1	3				21
	7	3	1	1	1	1				7
	8		1							1
10		1							1	
2013	<b>Guztira</b>	<b>878</b>	<b>957</b>	<b>727</b>	<b>623</b>	<b>213</b>				<b>3398</b>
	1	382	518	391	284	86				1661
	2	155	173	143	138	51				660
	3	148	126	94	103	39				510
	4	110	77	61	58	25				331
	5	60	43	27	21	9				160
	6	17	13	8	16	3				57
	7	5	4	2	3					14
	8	1	2	1						4
9		1							1	

Urtea	Kideen kopurua	Iraupena							Orokorra, guztira	
		0	1	2	3	4	5	6		7
2014	<b>Guztira</b>	<b>768</b>	<b>832</b>	<b>982</b>	<b>285</b>					<b>2867</b>
	1	372	429	458	151					1410
	2	135	143	219	64					561
	3	118	138	149	41					446
	4	85	65	90	13					253
	5	43	45	54	12					154
	6	14	11	11	3					39
	7	1	1		1					3
2015	<b>Guztira</b>	<b>554</b>	<b>1913</b>	<b>544</b>						<b>3011</b>
	1	259	995	264						1518
	2	108	389	133						630
	3	92	271	75						438
	4	58	165	46						269
	5	21	67	23						111
	6	11	20	1						32
	7	3	5	2						10
2016	<b>Guztira</b>	<b>134</b>	<b>1268</b>							<b>1402</b>
	1	79	678							757
	2	20	235							255
	3	16	181							197
	4	14	117							131
	5	3	46							49
	6	2	9							11
	7		2							2

**Iraupena:**

0: 1 eta 11 hilabete artekoa	2: 24 eta 35 hilabete artekoa	4: 48 eta 59 hilabete artekoa	6: 72 eta 83 hilabete artekoa
1: 12 eta 23 hilabete artekoa	3: 36 eta 47 hilabete artekoa	5: 60 eta 71 hilabete artekoa	7: 84 eta 95 hilabete artekoa

c) Urtez urte, 2010etik 2016ra. Urtez urte, 2010etik 2016ra, nazionalak, etorkinak oro har eta egoera irregularrean dauden etorkinak bereizita.

Kasu honetan, etorkinen administrazio egoerari (egoera orokorra zein egoera irregularrean dauden egoera) buruz galdetzen dela kontuan hartuta, nazionalitateari buruz eta ez jaioterriari buruz galdetzen dela ulertzen da. Horregatik, datuak hiru

kategoriatan multzokatzen dira: a) Espainiako nazionalitatea duten pertsonak, b) "Egoera irregularrean dauden immigranteak", hau da, Espainiako ez den nazionalitatea duten eta bizileku-baimenik gabe bizi diren pertsonak, eta, amaitzeko, c) "Immigrante erregularizatuak", hau da, Espainiako ez den nazionalitatea duten eta Espainiako bizileku-baimena duten pertsonak.

Urtea	Kategoria	Iraupena							Orokorra, guztira	
		0	1	2	3	4	5	6		7
2010	<b>Orokorra, guztira</b>	<b>915</b>	<b>948</b>	<b>634</b>	<b>436</b>	<b>347</b>	<b>173</b>	<b>71</b>	<b>14</b>	<b>3538</b>
	Nazionalitate espainiarra	333	391	346	299	214	112	42	10	1747
	Egoera irregularrean dauden immigranteak	111	173	21	1					306
	Immigrante erregularizatuak	471	384	267	136	133	61	29	4	1485
2011	<b>Orokorra, guztira</b>	<b>822</b>	<b>713</b>	<b>586</b>	<b>407</b>	<b>316</b>	<b>108</b>	<b>26</b>		<b>2978</b>
	Nazionalitate espainiarra	303	389	357	275	220	77	20		1641
	Egoera irregularrean dauden immigranteak	192	55	2	1					250
	Immigrante erregularizatuak	327	269	227	131	96	31	6		1087
2012	<b>Orokorra, guztira</b>	<b>572</b>	<b>583</b>	<b>458</b>	<b>335</b>	<b>288</b>	<b>19</b>			<b>2255</b>
	Nazionalitate espainiarra	364	400	317	231	211	13			1536
	Egoera irregularrean dauden immigranteak	3	1							4
	Immigrante erregularizatuak	205	182	141	104	77	6			715
2013	<b>Orokorra, guztira</b>	<b>878</b>	<b>957</b>	<b>727</b>	<b>623</b>	<b>213</b>				<b>3398</b>
	Nazionalitate espainiarra	607	673	530	421	147				2378
	Egoera irregularrean dauden immigranteak			1						1
	Immigrante erregularizatuak	271	284	196	202	66				1019
2014	<b>Orokorra, guztira</b>	<b>768</b>	<b>832</b>	<b>982</b>	<b>285</b>					<b>2867</b>
	Nazionalitate espainiarra	549	587	656	194					1986
	Egoera irregularrean dauden immigranteak	3	3	6	7					19
	Immigrante erregularizatuak	216	242	320	84					862
2015	<b>Orokorra, guztira</b>	<b>554</b>	<b>1913</b>	<b>544</b>						<b>3011</b>
	Nazionalitate espainiarra	413	1313	374						2100
	Egoera irregularrean dauden immigranteak	1	14	6						21
	Immigrante erregularizatuak	140	586	164						890
2016	<b>Orokorra, guztira</b>	<b>134</b>	<b>1268</b>							<b>1402</b>
	Nazionalitate espainiarra	97	877							974
	Egoera irregularrean dauden immigranteak		15							15
	Immigrante erregularizatuak	37	376							413

## Iraupena:

0: 1 eta 11 hilabete artekoa	2: 24 eta 35 hilabete artekoa	4: 48 eta 59 hilabete artekoa	6: 72 eta 83 hilabete artekoa
1: 12 eta 23 hilabete artekoa	3: 36 eta 47 hilabete artekoa	5: 60 eta 71 hilabete artekoa	7: 84 eta 95 hilabete artekoa



d) Denbora horretan garapen positiborik egon al da prestazioa jasotzen jarraitzeko denborari dagokionez?

1. taulan adierazitako datu orokorrak iraupenaren arabera multzokatzen baditugu, honako datu hauek lortzen ditugu:

Urtea	Iraupena			
	24 hilabete baino gutxiago		24 hilabete baino gehiago	
2010	1863	% 52,7	1675	% 47,3
2011	1535	% 51,5	1443	% 48,5
2012	1155	% 51,2	1100	% 48,8
2013	1835	% 54,0	1563	% 46,0
2014	1600	% 55,8	1267	% 44,2
2015	2467	% 81,9	544	% 18,1
2016	1402	% 100,0	0	% 0,0
<b>Guztira (15 eta 16 kenduta)</b>	<b>7988</b>	<b>% 53,1</b>	<b>7048</b>	<b>% 46,9</b>

Datu horietatik ondorioztatzen da 24 hilabete baino gehiago ematen dituzten familia-unitateak, 2010 eta 2014 bitartean, % 47 inguru direla (2015eko eta 2016ko datuak ezin dira analisi horretan sartu) eta gutxitzeko nolabaiteko joera dagoela, hori positiboa izanik.

“Sexua” aldagaia sartuz gero, joera berdina dagoela ikusten dugu (a) aldagaiaren taula),

baina, kasu honetan, titularrak gizonezkoak badira, % 43 inguruk 24 hilabete baino gehiago ematen dituzte prestazioa jasotzen, eta, emakumezkoak badira, berriz, % 51k. Horrek adierazten du, emakumeen kasuan, handiagoa dela gizarteratze errentako edo oinarrizko errentako programan denbora luzeagoa ematen duten familia-unitateen portzentajea.

Urtea	Iraupena			
	24 hilabete baino gutxiago		24 hilabete baino gehiago	
<b>2010</b>	1863	% 52,66	1675	% 47,34
Gizonezkoa	1059	% 57,77	774	% 42,23
Emakumezkoa	804	% 47,16	901	% 52,84
<b>2011</b>	1535	% 51,54	1443	% 48,46
Gizonezkoa	889	% 54,81	733	% 45,19
Emakumezkoa	646	% 47,64	710	% 52,36
<b>2012</b>	1155	% 51,22	1100	% 48,78
Gizonezkoa	667	% 53,83	572	% 46,17
Emakumezkoa	488	% 48,03	528	% 51,97
<b>2013</b>	1835	% 54,00	1563	% 46,00
Gizonezkoa	987	% 57,12	741	% 42,88
Emakumezkoa	848	% 50,78	822	% 49,22
<b>2014</b>	1600	% 55,81	1267	% 44,19
Gizonezkoa	834	% 59,07	578	% 40,93
Emakumezkoa	766	% 52,65	689	% 47,35
<b>Orokorra, guztira</b>	<b>7988</b>	<b>% 53,13</b>	<b>7048</b>	<b>% 46,87</b>
Gizonezkoa	4436	% 56,62	3398	% 43,38
Emakumezkoa	3552	% 49,32	3650	% 50,68

“Familia-unitateko kideen kopurua” aldagaiari dagokionez, ikusten dugu 24 hilabetetik gorako iraupenaren portzentajea handiagoa dela familia-unitateak 2 edo 3 kide dituztenean eta nolabaiteko egonkortasuna duenean. Pertsona bakarreko familia-unitateen kasuan, portzentaje hori 2012ko % 50 eta 2014ko % 43 artekoa da; hau da, nolabaiteko hobekuntza dago.

Urtea	Iraupena			
	24 hilabete baino gutxiago		24 hilabete baino gehiago	
<b>2010</b>	<b>1863</b>	<b>% 52,66</b>	<b>1675</b>	<b>% 47,34</b>
1	1015	% 55,40	817	% 44,60
2	303	% 47,94	329	% 52,06
3	249	% 51,34	236	% 48,66
4	150	% 47,62	165	% 52,38
5	92	% 51,69	86	% 48,31
6	40	% 52,63	36	% 47,37
7	6	% 60,00	4	% 40,00
8	6	% 75,00	2	% 25,00
9				
10	2	% 100,00	0	% 0,00
<b>2011</b>	<b>1535</b>	<b>% 51,54</b>	<b>1443</b>	<b>% 48,46</b>
1	864	% 53,90	739	% 46,10
2	236	% 44,36	296	% 55,64
3	220	% 51,89	204	% 48,11
4	117	% 50,87	113	% 49,13
5	72	% 52,55	65	% 47,45
6	21	% 53,85	18	% 46,15
7	4	% 40,00	6	% 60,00
8	1	% 33,33	2	% 66,67
9				
10				
<b>2012</b>	<b>1155</b>	<b>% 51,22</b>	<b>1100</b>	<b>% 48,78</b>
1	567	% 49,78	572	% 50,22
2	218	% 51,90	202	% 48,10
3	171	% 48,31	183	% 51,69
4	124	% 57,41	92	% 42,59
5	58	% 60,42	38	% 39,58
6	11	% 52,38	10	% 47,62
7	4	% 57,14	3	% 42,86
8	1	% 100,00	0	% 0,00
9				
10	1	% 100,00	0	% 0,00

Urtea	Iraupena			
	24 hilabete baino gutxiago		24 hilabete baino gehiago	
<b>2013</b>	1835	% 54,00	1563	% 46,00
1	900	% 54,18	761	% 45,82
2	328	% 49,70	332	% 50,30
3	274	% 53,73	236	% 46,27
4	187	% 56,50	144	% 43,50
5	103	% 64,38	57	% 35,63
6	30	% 52,63	27	% 47,37
7	9	% 64,29	5	% 35,71
8	3	% 75,00	1	% 25,00
9	1	% 100,00	0	% 0,00
10				
<b>2014</b>	1600	% 55,81	1267	% 44,19
1	801	% 56,81	609	% 43,19
2	278	% 49,55	283	% 50,45
3	256	% 57,40	190	% 42,60
4	150	% 59,29	103	% 40,71
5	88	% 57,14	66	% 42,86
6	25	% 64,10	14	% 35,90
7	2	% 66,67	1	% 33,33
8	0	% 0,00	1	% 100,00
9				
10				
<b>Orokorra, guztira</b>	7988	% 53,1	7048	% 46,87
1	4147	% 54,2	3498	% 45,76
2	1363	% 48,6	1442	% 51,41
3	1170	% 52,7	1049	% 47,27
4	728	% 54,1	617	% 45,87
5	413	% 57,0	312	% 43,03
6	127	% 54,7	105	% 45,26
7	25	% 56,8	19	% 43,18
8	11	% 64,7	6	% 35,29
9	1	% 100,0	0	% 0,00
10	3	% 100,0	0	% 0,00

Amaitzeko, kontsultatutako azken aldagaiari (hau da, nazionalitatea eta administrazio egoera) dagokionez, iraupen luzeari buruzko (3 urte edo gehiago) honako datu hauek agertzen dira:

Urtea	Iraupena			
	24 hilabete baino gutxiago		24 hilabete baino gehiago	
<b>2010</b>	1863	% 52,66	1675	% 47,34
Espainiarra	724	% 41,44	1023	% 58,56
Irregularra	284	% 92,81	22	% 7,19
Erregularra	855	% 57,58	630	% 42,42
<b>2011</b>	1535	% 51,54	1443	% 48,46
Espainiarra	692	% 42,17	949	% 57,83
Irregularra	247	% 98,80	3	% 1,20
Erregularra	596	% 54,83	491	% 45,17
<b>2012</b>	1155	% 51,22	1100	% 48,78
Espainiarra	764	% 49,74	772	% 50,26
Irregular	4	% 100,00	0	% 0,00
Erregularra	387	% 54,13	328	% 45,87
<b>2013</b>	1835	% 54,00	1563	% 46,00
Espainiarra	1280	% 53,83	1098	% 46,17
Irregularra	0	% 0,00	1	% 100,00
Erregularra	555	% 54,47	464	% 45,53
<b>2014</b>	1600	% 55,81	1267	% 44,19
Espainiarra	1136	% 57,20	850	% 42,80
Irregularra	6	% 31,58	13	% 68,42
Erregularra	458	% 53,13	404	% 46,87
<b>Orokorra, guztira</b>	7988	% 53,13	7048	% 46,87
Espainiarra	4596	% 49,48	4692	% 50,52
Irregularra	541	% 93,28	39	% 6,72
Erregularra	2851	% 55,17	2317	% 44,83

Egoera irregularrean dauden immigranteei dagokienez, adierazi behar da 2012ko erreformak eragin egin zuela horiek arretarik ez jasotzea, ohiz kanpoko kasuren batean izan ezik. Horren ondorioz, c) aldagaiaren taulan ikusi den bezala, oso gutxi dira 2013ko eta 2014ko kasuak. Beraz, portzentaje hori ez da adierazgarria talde horretan.

Bizileku-baimena duten atzerritarrei dagokienez, 24 hilabetetik gorako iraupena ikusten da, Espainiako nazionalitatea dutenena baino txikiagoa izanda, nahiz eta joera bi kolektiboen arteko konbergentziarantz abiatzen den. Izan ere,

aztertutako azken urtean portzentaje txikiagoa dute Espainiako nazionalitatea dutenek (2010ean % 42 izatetik 2014an % 47 izatera igaro dira lehen kasuan, eta % 59tik % 51ra bigarrean).

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2016ko abuztuaren 3an.

Eskubide Sozialetako lehendakariordea: Miguel Laparra Navarro

## Galdera, Lanbide Heziketako ikastetxeetarako orientazio-lanpostuak esleitzeko baremoari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Lanbide Heziketako ikastetxeetarako orientazio-lanpostuak esleitzeko baremoari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko uztailaren 1eko 94. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko abuztuaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeak 9-16/PES-00275 idatzizko galdera egin du. Hona Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Honako hauek dira orientazioko lanpostuak esleitzeko baremoen oinarri diren irizpide teknikoak:

Unitate bakoitzeko	Orientazio orduen kopurua
Haur Hezkuntza	1
Lehen Hezkuntza	1
DBH	1
Batxilergoa	0.6
LH ertaina	0.6
LH goikoa	0.6
OLH	1,5
BLH	1,5
CEU	2
OG	2
TGD/ UTE - HTU	2

Iruñean, 2016ko abuztuaren 2an.

Hezkuntzako kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

## Galdera, Maila Ertaineko, oinarrizko LHko eta LH bereziko ikasleen eskola-orientazioari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Maila Ertaineko, oinarrizko LHko eta LH bereziko ikasleen eskola-orientazioari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko uztailaren 1eko 94. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko abuztuaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeak 9-16/PES-00276 idatzizko galdera egin du. Hona Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Erantsitako taulan egiazta daitekeen bezala, bai oinarrizko lanbide heziketako ikasleentzako zuzkidura, bai lanbide heziketa berezirako zuzkidura handiagoak dira derrigorrezko ikaskuntzetako ikasleei dagokiena baino, zeren eta bi kasuetan orientazioko 1,5 ordu baitituzte (0,5 ordu gehiago derrigorrezko hezkuntzan baino).

Bestetik, gradu ertaineko ikasleek 0,6 orduko zuzkidura dauka, zeina baita batxilergoko ikasleek daukatenaren baliokidea.

Unitate bakoitzeko	Orientazio orduen kopurua
Haur Hezkuntza	1
Lehen Hezkuntza	1
DBH	1
Batxilergoa	0.6
LH ertaina	0.6
LH goikoa	0.6
OLH	1,5
BLH	1,5
CEU	2
OG	2
TGD/ UTE - HTU	2

Iruñean, 2016ko abuztuaren 2an.

Hezkuntzako kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

## **Galdera, Lanbide Heziketan eskola-orientaziorako baliabideak gutxitzeari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Lanbide Heziketan eskola-orientaziorako baliabideak gutxitzeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko uztailaren 1eko 94. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko abuztuaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeak 9-16/PES-00277 idatzizko galdera egin du. Hona Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

2016-17 ikasturterako, aurreko ikasturtearekin alderatuta 48 orduko igoera gertatu da orientaziorako baliabideen zuzkiduran.

	<b>Orientazioko baliabideen zuzkidura</b>	
	<b>2015-16 ikasturtea</b>	<b>2016-17 ikasturtea</b>
<b>Lehen hezkuntza</b>	2468	2505
<b>Bigarren hezkuntza</b>	1180	1191
<b>Guztira</b>	3648	3696

Iruñean, 2016ko abuztuaren 2an.

Hezkuntzako kontseilaria: José Luis Mendoza

Peña

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen 2017ko lan egutegia.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko abenduaren 19an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, bestek beste:

Zerbitzu orokorretako buruak 2017rako lan-egutegiaren proposamena aurkezu du, zeinak Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzordearen oniritzia baitauka.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 37. artikuluekin bat, honako hau ERABAKI DA:

**1.** Onestea Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen 2017ko egutegia. Hauexek izanen dira asteburutik kanpoko jaiegunak eta egun bereziak:

- Uztailaren 6a, 7a, 10a, 11, 12a, 13a eta 14a: Sanferminetako jaiegunak.
- Azaroaren 29a: San Saturninoko jaieguna.

Gainerako jaiegunak izanen dira Foru Komunitateko Administrazioarako oro har ezarritakoak.

**2.** Ohiko lanaldia egun indarra duen berbera izanen da, eguneko 7,5 ordukoa, astelehenetik ostiralera.

Uztailean, abuztuan eta irailaren lehendabiziko hamabostaldian lanaldia 08:00etatik 14:30era bitartekoa izanen da. Sartzeko, 07:30etik 08:30era bitarteko malgutasuna egonen da; ateratzeko, berriz, 14:00etatik 15:00etara bitarteko malgutasuna. Betiere, egunean 6 ordu eta erdi bete beharko dira lanean.

**3.** Gainerako egunetarako lan txanda hauek izanen dira langile guztiek bete beharrekoak, talde bakoitzaren berezitasunak kontuan harturik:

- a) Goizeko txanda.
- b) Goiz eta arratsaldeko txanda.

**4.** Urteko 1.560 lanorduen kopurua lortze aldera, langileek ordu bat errekueratu beharko dute 2017. urtearen bitartean edo ordu hori beren lan-poltsatik deskontatu.

**5.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2016ko abenduaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza



## Nafarroako Parlamentuko Erregistro Orokorraren 2017ko ordutegi ofiziala.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko abenduaren 19an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 107. eta 109. artikuluek ezarritakoarekin bat, hona ERABAKIA:

**1.** Ezartzea hauxe izanen dela Nafarroako Parlamentuko Erregistro Orokorraren ordutegi ofiziala 2017. urterako:

Uztailean, abuztuan eta irailaren lehendabiziko hamabostaldian:

- Astelehenetik ostiralera:  
9:00etatik 14:00etara.
- Uztailaren 6an, 7an, 10ean, 11n, 12an, 13an eta 14an eta azaroaren 29an itxita egonen da, eta baliogabeak izanen dira ondorio guttiarako.

Urtarrilaren 2tik ekainaren 30era, irailaren bigarren hamabostaldian eta urritik abendura bitartean:

- Astelehenetik ostegunera:  
09:00etatik 14:30era.  
17:00etatik 19:00etara.
- Ostiralean: 09:00etatik 14:30era.

**2.** Baliogabeak izanen dira, halaber, larunbat, igandeak eta Nafarroako Foru Komunitaterako eta Iruñerako ezarritako jaiegunak.

**3.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko abenduaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## Lan-egutegia eta Erregistroaren ordutegia aldatzea 2016ko abenduaren 27tik 2017ko urtarrilaren 5era bitarteko egunetan.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko abenduaren 19an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzordeak erabaki bat aurkeztu dio Legebiltzarreko Mahaiari, 2016ko abenduaren 15ekoa, non eskatzen baitu 2016ko abenduaren 27tik 30era eta 2017ko urtarrilaren 2tik 5era bitarteko lan-asteetan goizeko lanaldia ezartzea.

Kontuan izanik aipatu lan-asteetan ez dagoela aurreikusita arratsaldeko parlamentu-jarduerarik, eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 37. artikuluekin bat, hauxe ERABAKI DUGU:

**1.** Aldatzea Mahaiaren 2015eko abenduaren 14ko erabakiaren bidez onetsitako lan-egutegia; halatan, 2016ko abenduaren 27tik 30era bitarteko lan-asteetan lanaldia goizekoa izanen da, betiere zerbitzuetako beharrek ahalbidetzen badute.

**2.** Aldatzea Mahaiaren 2016ko abenduaren 19ko erabakiaren bidez onetsitako lan-egutegia;

halatan, 2017ko urtarrilaren 2tik 5era bitarteko lan-asteetan lanaldia goizekoa izanen da, betiere zerbitzuetako beharrek ahalbidetzen badute.

**3.** Aldatzea Nafarroako Parlamentuko Erregistroaren ordutegia, Mahaiaren 2015eko abenduaren 14ko erabakiaren bidez onetsitakoa, eta ezartzea 2016ko abenduaren 27tik 30era bitarteko egunetan 09:00etatik 14:30era bitarte egonen dela zabalik.

**4.** Aldatzea Nafarroako Parlamentuko Erregistroaren ordutegia, Mahaiaren 2016ko abenduaren 19ko erabakiaren bidez onetsitakoa, eta ezartzea 2017ko urtarrilaren 2tik 5era bitarteko egunetan 09:00etatik 14:30era bitarte egonen dela zabalik.

**5.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2016ko abenduaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza





